

## **ETENGABE IREKITA DAUDEN KATEGORIETAN IZENA EMATEKO ARGIBIDEAK**

Etengabe irekita dauden kategorietan izena eman ahal izateko titulazioa/espezialitatea eskuratu eta gero, aldi baterako kontratazio Zerrendetan masiboki izango diren inskripzio berriak ikusita, hona hemen aintzat hartu beharreko jarraibideak:

1. Eskabidea egiterakoan, **LANPOSTU HUTSEN ZERRENDAN** izena emateko, Arlo Sanitario 1, 2 edo 3 hautatu behar dira, eta **ORDEZKAPENEN ZERRENDAN**, berriz, Zerbitzu Erakunde 1 edo 2. Egin ezean, hau da, Zerbitzu Erakundeak hautatu ez badira, Ordezkapenen Zerrendan izena eman ez duzula joko da.
2. Zerrendak ordenatzeko kontuan hartuko den **data** eskabidea egin deneko data izango da, edo titulazioa/espezialitatea lortu deneko data, baldin eta aipatutako data hori eskabide-data baino beranduagokoa bada. Data bera duten eskabideak, berriz, adinaren arabera ordenatuko dira, 2011ko Aldi baterako kontratazio zerrendak arautzen duen Akordioaren arabera.
3. Izena emateko eskabidean egindako **aldaketa oro** idatziz jakinarazi beharko da, helbide honetan:  
Giza Baliabideetako Zuzendaritza, Hautaketa eta Horniketa Zerbitzua (2011ko Kontratazio Zerrendak)  
Araba kalea, 45  
01006 Vitoria-Gasteiz
4. **Zerrendak** abenduaren 31n **itxiko dira**, eta egun horretatik aurrera ezin izango da aldaketarik egin izena emateko eskabidean. Salbuespena: akordioaren hamargarren atalaren kasuak.
5. Izena emateko eskabidearen kopiarekin batera, **dokumentazio hau aurkeztu behar da:**

- *Nortasun-agiriaren edo Atzerritarraren Identifikazio Zenbakiaren fotokopia konpulsatua.*

- *Kontratazio-zerrendari dagokion lanpostuan jarduteko behar den titulazioaren edo emateko eskabideak ordaindu izana egiaztatzen duen frogagiri edo dokumentuaren fotokopia konpulsatua edo notarioren lekukotza. Atzerrian lortutako tituluak, Espainiako Ministerioak haiek homologatzen edo onartzen dituen erabakiarekin batera aurkeztu beharko dira.*

- *Lan-esperientzia aitortzen duen jatorrizko ziurtagiria edo horren kopia kautoa, notarioak egina, bertan xehe adieraziz: lan-denboraldi desberdinetan izandako kategoria, lotura juridikoa eta taldea, hasierako datatik (eguna, hilabetea eta urtea) amaierako datara arte (eguna, hilabetea eta urtea). Ziurtagiri horrek dagokion administrazio publikoko organo eskudunek emana behar du izan, eta horrelakoetarako ezarrita daukan ereduari jarraitu behar dio. Dena den, Osakidetzan zerbitzuak egin dituztenek ez dute aurkeztu behar egindako zerbitzuen egiaztagiririk, zerbitzu horiek ofizioz baloratuko baitira.*

- *Egiaztatutako euskara-tituluaren fotokopia arrunta. Euskara-titulua Osakidetza antolatutako deialdietan lortu bada edo Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzak beren beregi baliokidetu bada Osakidetza hizkuntza-eskakizun gisa, kasu horietan ez da beharrezkoa izango euskara-titulua aurkeztea.*

Dokumentazioa helbide honetara bidali behar da:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua  
Giza Baliabideetako Zuzendaritza  
Hautaketa eta Horniketa Zerbitzua – 2011ko Kontratazio Zerrendak  
Araba kalea 45  
01006 Vitoria-Gasteiz